

UDALBATZA OSOA

Bilkura-akta

Ohiko bilkura

Data: Ekainak 14, asteazkena.

2017ko uztailaren 12ko akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko. Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna da bilkuraren buru. Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Bertaratu ez diren zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP), bertaratu ezina arrazoitu du, eta Diana Rubio Lafuente (PP).

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde zuzenetik eta arazko publikitatearekin. Honako hau da

Eguneko aztergaien zerrenda

1. Onestea 2017ko maiatzaren 10eko ohiko bilkurako akta.
2. Alkatetza dekretu eta ebazpenak.
3. **Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.**
 - 3.1. Behin betiko onestea autokarabanak Oyón-Oion udalerrian aparkatzea arautzen duen udal-ordenantza.
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
5. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**
6. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea**
 - 6.1. “Bazterra” aretoa erabiltzeko arauak.
 - 6.2. Obra eta Zerbitzuak Foru Planaren 2018-2019 programan obrak sartzeko eskaera. Azken puntua) Galderak eta eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2017ko apirilaren 12ko ohiko bilkurako akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharririk egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei. Ez da oharririk egin.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2017ko maiatzaren 10eko bilkurako akta, igorritako zirriborroaren arabera.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

2. Alkatetza dekretu eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2017ko 97/17tik 135/17ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

3. Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.

3.1. Behin betiko onestea autokarabanak Oyón-Oion udalerrian aparkatzea arautzen duen udal-ordenantza.

Aurrekariak:

1. Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren 08/V/74 izapidea. Bete beharreko agiria, Trafiko Zuzendaritza Nagusiarena, autokarabanak aparkatzeari buruzkoa.
2. Oyón-Oiongo Udalak 2017ko apirilaren 12an hasiera batean onetsi zuen autokarabanak aparkatzea arautzen duen ordenantza.
3. Autokarabanak aparkatzea arautzen duen ordenantzaren espedientea jendaurrean ikusgai jarri zen 2017ko apirilaren 26ko 47 zenbakiko ALHAOn, webgunean eta udaleko iragarki taulan. Ikusgai egon den denboran ez da alegaziorik aurkeztu. Espedientearen erreferentzia: OrdAduar1704.
4. Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen VI. titulua aplikatu da.
5. Informazio batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Behin betiko onestea autokarabanak aparkatzea arautzen duen ordenantza.
- 2) Ordenantza osoa argitaratu da eta indarrean jarriko da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan zehaztutako epea igaro ondoren, eta indarrean mantenduko da aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

6.1. “Bazterra” aretoa erabiltzeko arauak.

Alkate jauna: Batzordeetan gaia landu zen, baina ez zen proposamen zehatzik egin.

Gamarra jauna: Bilduk zenbateko bat proposatu zuen; eta uste dut oraindik arautzeke dagoela doako erabilera zein talderi utziko zaien.

Villanueva Gutiérrez jauna: Ongi iruditzen zait mahai gainean uztea.

Campos Latre jauna: Ez dago arazorik.

Aurrekariak:

- 1) Alkate jaunak eskatu du aztergaien zerrendatik kentzea gaia.
- 2) Toki Erakundearen Antolamenduari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 92. artikulua aplikagarria da.

Hau erabaki da:

- 1) Gaia eguneko aztergaien zerrendatik kentzea eta hurrengo bilkuran eztabaidatzeko uztea.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

6.2 Obra eta Zerbitzuak Foru Planaren 2018-2019 programan obrak sartzeko eskaera.

Alkate jauna: Batzordean esan zen bezala, Obrak eta Zerbitzuak Foru Planean sartu nahi den obra da Laureano Irribarria kalea eta bere ondokoak urbanizatzea; horretarako, oztopoak kenduko dira eta instalazio sarea osatuko da. Exekuzioaren aurrekontua, kontrata bidez, 1.962.060,73 eurokoa da. Inbertsioaren aurrekontua 2.049.446,62 eurokoa da. Gogorarazi nahi dizuet Aldundiaren diru-laguntza moduluka doala. Hortaz, ezin da jakin diru-laguntza zenbatekoa izango den obra ebaluatzen duten arte.

Gamarra jauna: Aldundiaren erantzunaren zain egon beharko gara. Gure taldea alde dago; konpondu behar den esparru bat da eta.

Villanueva jauna: Eskaeraren alde bozkatuko dugu. Oztopoak kendu behar ditugu eta horregatik pozik gaude eskaera honekin; izan ere, Irribarria kalea ez eroso da bertatik igarotzeko. Gure taldearen babesa daukazue eskaera hau indartzeko behar den guztia egiteko.

Campos jauna: Obra garrantzitsua da eta gure babesa izango du...

Aurrekariak:

- 1) Arabako Foru Aldundiaren Obrak eta Zerbitzuak Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Araua.
- 2) Foru Gobernuaren Kontseiluaren ekainaren 2ko 26/2017 Foru Dekretua; horren bidez onesten dira Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei Obrak eta Zerbitzuak Foru Planean dauden laguntzak emateko oinarriak eta 2018-2019 aldirako deialdia.
- 3) Oyón-Oiongo Udala ez dago Obrak eta Zerbitzuak Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren 8. artikuluan zehazten diren kanpoan geratzeko arrazoen barruan.
- 4) Pedro Moral goi arkitektoak idatzitako dokumentua, obrari buruzkoa; bertan eskatzen da Obrak eta Zerbitzuak Foru Planean honako hau sartzeko:
 1. Laureano Irribarria kalea eta bere ondokoak urbanizatzea; horretarako, oztopoak kenduko dira eta instalazio sarea osatuko da. Exekuzioaren aurrekontua, kontrata bidez, 1.962.060,73 eurokoa da. Inbertsioaren aurrekontua 2.049.446,62 eurokoa da.
- 5) Alkate jaunak Ekonomia, Hirigintza eta Ogasuna batzordean aurkeztu zuen proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Obrak eta Zerbitzuak Foru Planaren 2018-2019 programan sartzea, lehentasunaren arabera, Laureano Irribarria kalea eta bere ondokoak urbanizatzea; horretarako, oztopoak kenduko dira eta instalazio sarea osatuko da. Exekuzioaren aurrekontua, kontrata bidez, 1.962.060,73 eurokoa da. Inbertsioaren aurrekontua 2.049.446,62 eurokoa da.
- 2) 4. aurrekarian zehazten diren agiri teknikoak onestea.
- 3) Obra edo zerbitzu guztien finantzazioa bere gain hartzea edo, kasu horretan, Plan horretako ordainsariak. Era berean, obrari edo zerbitzuari aplikatu dakioken araudi osoa betetzea, bai eta araudian aurreikusten diren baldintza guztiak ere.
- 4) Plana eta obra finantzatzeko konpromisoa onestea; Udalak 555.753,68 euroko ekarpena egingo du, bere baliabideetatik.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Azken puntua) Galderak eta eskeak

Alkate jauna: Gure asmoa zen Eusko Jaurlaritzaren erakunde adierazpenari atxikitzeko proposamena egitea, LGTBI pertsonen nazioarteko eguna dela eta; baina beste talde baten proposamena dagoenez, eta orain adostu ezin dugunez, ez dugu eskatu eguneko aztergaien zerrendan sartzeko.

Alkate jauna: Villanueva jaunak, aurreko bilkuran, apirileko bilkurari zegokionez esandakoari buruz zerbaít esan nahi dut. Villanueva jaunak esan zuen alkate honek esandakoa ez zela egia, Bilduren mozioa PP taldearen mozioa zuzenduta zela. Bozeramaile jaunak aurreko bilkuran aurkeztutako agiriak berrikusi ditut eta PP taldeak aurkeztutako mozioa Bilduk Artziniegan aurkeztu zuena baino zaharragoa da. Hau da, lehenengo testua PP taldearena da, eta alkate honek ez zuen gezurrik esan; Bilduren mozioa PP taldearen mozioaren kopia bat da.

Villanueva jauna: PP taldea Batzarretan aurkeztu zuen mozioak ez ditu Eh Bildu taldearenak dituen puntu berdinak; biak irakurtzea gomendatzen dizut. Hortaz, mozioak ez ziren berdinak. Esan zenezakeen 1. puntua kopia zutela. Eh Bilduri ez dio lotsarik ematen PP taldearekin edo beste taldeekin adosteko, herritarren mesederako bada. Edonola ere, alkatea zaren aldetik, hori bilkura honetako lehen puntuan esan behar zenuen.

Gamarra jauna: San Prudencioko zelaiko saskibaloiko saskietan sareak jartzeko eskatu du.

Villanueva jaunak 122 alkatetza ebazpenagatik galdetu du.

Idazkari jaunak ebazpen osoa irakurri du.

Alkate jauna: Ebazpenak baimentzen du behin behineko lan kontratu bat lanpostu bat betetzeko hautaketa edo promozio prozesuan zehar, postu hori behin behinean betetzeko. Bitarteko kontratu bat da. Kontratuaren iraupena hautaketa prozesuaren arabera izango da. Herri administrazio batek egiten duen hautaketa prozesu bat denean, kontratu horien iraupena prozesu horien iraupenaren berdina izango da, araudian aurreikusten den bezala.

Lanpostua hutsik zegoen Carmelo Corres Fernández ordezteko sinatutako lan kontratua amaitu zenetik. Kontratua eten zen Gizarte Segurantzaren Probintziako Zuzendaritzak hala eskatuta; horren bidez langilearen behin betiko desgaitasuna frogatzen da, eta lanpostua gordetzeko legezko betebeharra desagertzen da.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 20:55ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oionen, 2017ko maiatzaren 24an.

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE